BESTELAKO XEDAPENAK

ZIENTZIA, UNIBERTSITATE ETA BERRIKUNTZA SAILA

4628

AGINDUA, 2026ko urriaren 6koa, Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburuarena, zeinaren bidez onartzen baitira Berrikuntzaren Itsasargiak programako Erronkak eta Plataformak modalitateetako dirulaguntzetarako oinarri arautzaileak eta 2026-2028 ikasturterako deialdia egiten baita.

Euskadiko zientzia-, teknologia- eta berrikuntza-politika helburu eta programa operatiboei beste bultzada bat eman beharrean dago, tokiko, Europako eta mundu osoko erronka estrategikoei erantzuteko, eta abangoardiako zientziatik eragin soziala edo ekonomikoa duen berrikuntzaranzko trantsizioa bizkortzeko.

Gauzak horrela, Eusko Jaurlaritzak «Berrikuntzaren Itsasargiak» programa taxutu du, berrikuntzaren arloko ahalegin publikoak modu koherente eta koordinatuan bideratzeko, eta horrela, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko (aurrerantzean, ZTBES) eragile guztien gidari izateko, ezagutza aurreratua sortu eta ezagutza hori gizartean eragin handia izango duten irtenbide bihurtzeko bidean.

«Berrikuntzaren Itsasargiak» hiru trantsizioei –digitala eta teknologikoa, energetikoa eta ingurumenekoa, eta soziodemografikoa eta sanitarioa– lotutako erronken inguruan ardaztuta daude, eta baliabideak eta gaitasunak Euskadiren indargune zientifiko, teknologiko eta industrialetan ipintzen ditu batik bat, aldi berean, Europak trantsizio berdearen, lehiakortasunaren eta erresilientziaren arloan dituen lehentasunetara gehiago hurbilduta.

Testuinguru horretan, Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abenduaren 23ko 494/2024 Dekretuak, besteak beste, Euskadi 2030 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Plana (aurrerantzean, Euskadi 2030 ZTBP) bultzatu eta koordinatzeko eginkizunak esleitzen dizkio sailari, bai eta berrikuntza-funtsa kudeatzekoa ere. Horrekin bat etorriz, Berrikuntza Zuzendaritzari dagokio ZTBP Euskadi 2030 planaren helburuak lortzen lagunduko duten programak, jarduketak eta ekimenak sustatzea eta koordinatzea, bai eta funts horretako partiden erabilera kudeatzea ere.

2025eko urriaren 30ean, «Berrikuntzaren Itsasargiak» programa aurkeztu zen. Bertan, bederatzi berrikuntza-lerro estrategikoak zehaztu ziren, hain zuzen ere, adimen artifizialaren, teknologia kuantikoen, zibersegurtasunaren, deskarbonizazioaren, elikadura osasungarri eta jasangarriaren, osasun bakarraren, osasun pertsonalizatuaren eta doitasunezkoaren, osasunaren eta demografiaren gizarte-baldintzatzaileen eta erronka soziosanitarioen itsasargiak.

Ondoren, 2026ko martxoaren 16an, ekitaldi publiko batean, Berrikuntzaren Itsasargiak programaren barruan Phi operatiboa sustatzeko laguntza-programaren egituraren berri eman zen, (Irekia, Eusko Jaurlaritza – Gobierno Vasco: Eusko Jaurlaritzak Berrikuntzaren Itsasargien programa martxan jarri du, proiektu zientifiko eta teknologiko estrategikoak bultzatzeko). Phi operatiboa lau tresnaren inguruan egituratuta dago: Estrategiak, eragin handiko estrategia publikoak bultzatzera bideratuak; Erronkak, eragina duten gaitasun zientifiko eta teknologikoak konektatzen dituzten erronkak garatzera bideratuak; Plataformak, azpiegitura eta gaitasun gaitzaileen garapenean zentratuak; eta Ibilbideak, Europako eta munduko programa eta ekimenekin konektatzera bideratuak. Phi operatiboaren barruan, tresna batzuetarako lehiarako deialdiak antolatzeko beharra aurreikusten da.

Testuinguru horretan, lehia-deialdi hau Berrikuntzaren Itsasargien programaren barruan Phi operatiboaren hedapen operatiboari erantzutera dator, zehazki, Erronkak eta Plataformak modalitateetan, eta Berrikuntza Funtsaren kargura finantzatuko da. Erronkak modalitatea zientzia- eta berrikuntza-proiektuak garatzera bideratuta dago, ZTBESko eragile-partzuergoek, enpresek eta organismo publikoek bere gain hartutako herrialde-erronkei aurre egiteko. Plataformak modalitatea, berriz, ZTBES osoari zerbitzua emateko azpiegitura edo plataforma zientifiko-teknologiko handiak hobetzera eta egokitzera bideratuta dago, erabakigarriak baitira Berrikuntzaren Itsasargiak eraginkortasunez hedatzeko eta Europako eta munduko plataformetan integratzeko.

Mota honetako lehen deialdia da, berrikuntzaren balio-kateari modu integratuan heltzen diona, hasi ezagutza sortzetik eta hura baliozkotu, ezarri edo gizartera edo merkatura iritsi arte.

Agindu honen bidez, beraz, eragin handiko proiektuak bultzatuko dituen laguntza-esparru bat sortu nahi da, halako moldez non balio-kate osoa hartuko den, abangoardiako zientziatik eta teknologiatik hasi eta eragin sozial edo ekonomikoa duen berrikuntzaraino, lankidetza eta eragile anitzeko gobernantza, hainbat sailen inplikazioa, nazioarteko proiekzioa eta baterako finantzaketa sustatuz, Berrikuntzaren Itsasargien printzipio operatiboekin bat etorrita.

Administrazio Publikoen dirulaguntzak emateko jarduera arautzen duten printzipioen arabera ebatziko da deialdi hau, xedapen hauetan ezarritako eran: Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legea; Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean jasotako oinarrizko araudia; lege horren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, eta aplikatu beharrekoak diren gainerako xedapenak.

Agindu honetan araututako dirulaguntzak sailaren 2026rako dirulaguntzen plan estrategikoa onesteko Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburuak 2026ko urtarrilaren 20an eman zuen eta, gerora, 2026ko irailaren 7an aldatu zuen Aginduan sartzen dira.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2 artikuluan ezartzen dena aintzat hartuta, deialdi hau elektronikoki izapidetuko da.

Euskal Autonomia Erkidegoko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuan eta Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen dituen abenduaren 23ko 494/2024 Dekretuan ezarritakoaren ondorioz, eta sail horri ematen zaizkion eskumenak baliatuta,

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Berrikuntzaren Itsasargiak programako Erronkak eta Plataformak modalitateak bultzatzeko dirulaguntzak arautzen dituzten oinarriak onartzea (eranskinean daude jasota) eta 2026-2028rako deialdia egitea.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA.– Gaikuntza.

Berrikuntzako zuzendariari ahalmena eman zaio agindu hau betetzeko beharrezkoak diren administrazio-egintzak eman ditzan.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.– Errekurtsoak.

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, interesdunek aukerako berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango diote Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edo, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hileko epean, agindua aldizkari ofizial berean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA.– Ondorioak.

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko urriaren 6a.

Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburua,
JUAN IGNACIO PÉREZ IGLESIAS.

ERANSKINA

BERRIKUNTZAREN ITSASARGIAK PROGRAMAKO ERRONKAK ETA PLATAFORMAK MODALITATEAK BULTZATZEKO DIRULAGUNTZEN OINARRI ARAUTZAILEAK

Lehenengoa.– Xedea.

Oinarri hauek 2026-2028 aldian Berrikuntzaren Itsasargiak bultzatzeko dirulaguntzak lehia-konkurrentziaren araubideari jarraituz emateko prozedura arautzen dute, eta laguntza horiekin sustatu nahi dira eragileen partzuergoak; inpaktu handiko proiektuak eta plataforma zientifiko-teknologikoak; datu-baseak, eta trantsizio hirukoitza –digitala eta teknologikoa, energetikoa eta ingurumenekoa, eta soziodemografikoa eta sanitarioa– lortzen laguntzen duten lagin-bankuak, horrela, abangoardiako zientziatik eta teknologiatik eragin soziala edo ekonomikoa izango duen berrikuntzarako trantsizioa bizkortzeko, Euskadi 2030 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Planarekin eta Berrikuntzaren Itsasargiak programarekin bat etorriz.

Bigarrena.– Dirulaguntza-lerroak.

1.– Berrikuntzaren Itsasargiak hedatzeko dirulaguntzak bi lerro hauen artean banatuko dira: Erronkak eta Plataformak.

2.– Erronkak dirulaguntza-lerroa eragin handiko proiektuak diruz laguntzera bideratuta dago. Proiektu horiek pizgarri eta erronka diren helburuen inguruan egituratuta daude, eta emaitza frogagarriak lortzera eta Berrikuntzaren Itsasargiak programaren esparruan baliozkotzera, ezartzera edo mailakatzera bideratuta daude. Proiektuek baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Berrikuntzaren Itsasargi baten edo gehiagoren esparruan sartuta egotea.

b) Balio-kate osoa hartzea, ezagutza sortzen/aplikatzen denetik hasi eta eragin sozial edo ekonomikoraino.

c) Gobernantza-modu jakin bat duen partzuergo batek gauzatzea, eta partzuergo horretan, gutxienez, parte hartu beharko dute ZTBESko eragile zientifikoek, beste eragile eta enpresa batzuek, edo, hala badagokio, emaitzak ezartzen edo hedatzen direla ziurtatzeko ezinbestean parte hartu behar duten beste entitate batzuek.

d) Garapen zientifikorako plan bat ere jasotzea, mugarri, entregagai eta eraginekin.

e) Transferentzia-, ustiapen-, ezarpen- edo mailakatze-plan bat jasotzea.

3.– Plataformak dirulaguntza-lerroa, berriz, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen (aurrerantzean, ZTBES) azpiegitura estrategikoak diruz laguntzera bideratuta dago, horrela, Berrikuntzaren Itsasargien programa garatzeko. Plataformak ekipamendu zientifiko-teknologikoa edo datu-espazioak edo lagin-bankuak integratuz eta ZTBESri lotutako zerbitzuen mapa baten bidez eratzen dira, eta helburu eta betekizun hauek bete behar dituzte:

a) Helburuak:

1. Ikerketa eta Berrikuntzaren Euskal Esparrua indartzea.

2. Berrikuntzaren Itsasargiak programa garatzen laguntzea.

3. ZTBESk ekipamendu zientifiko-teknologikoa eskura dezan erraztea.

4. ZTBESk datu estrategikoak, elkarreragingarriak eta kalitatezkoak eskura ditzan erraztea, eta datu horiei lotutako adimen artifizialean oinarritutako soluzioak garatzen laguntzea.

5. ZTBESk lagin-banku estrategikoetarako eta kalitatezkoetarako irispidea izan dezan erraztea.

6. Plataformei lotutako zerbitzu espezializatuak erraztea.

7. ZTBESn gaitasun zientifiko-teknologikoak eta eragin handikoak indartzea.

8. Talentuaren, konpetentzien eta kualifikazio oso espezializatuaren beharrizanak betetzen laguntzea.

9. Erraztasunak ematea Euskadik autonomia estrategikoa izan dezan zientzia- eta teknologia-esparruetan, eta subiranotasuna, datu-espazioen eta lagin-bankuen arloan.

10. Helburu osagarriak dituzten nazioarteko plataformekiko konexioa sustatzea.

b) Betekizunak:

1. Berrikuntzaren itsasargietako batean edo gehiagotan sartuta egotea eta estrategikoak direla erakustea.

2. ZTBESri, enpresei eta organismo publikoei zerbitzu operatiboa emateko plan bat jasotzea.

3. Plataformaren 2030era arteko finantzaketako eta finantza-jasangarritasuneko plan bat jasotzea.

4. Gobernantza jakin bat duen partzuergo batek sustatutakoak izatea; partzuergo horretan, gutxienez, parte hartu beharko dute ZTBESko eragile zientifikoek, beste eragile eta enpresa batzuek, edo, hala badagokio, emaitzak ezartzen edo hedatzen direla ziurtatzeko ezinbestean parte hartu behar duten beste entitate batzuek.

Lerro honetan, jarduketa hauek lagunduko dira diruz:

a) Plataforma berriak sortzea.

b) Lehendik dauden plataformak ZTBESren esparruan mailakatzea, hauen bidez:

1. ekipamendu berriak erosita.

2. datu-esparru edo lagin-banku berriak sortuta, edo lehendik daudenak hobetuta.

3. zerbitzu berriak sortuta, edo lehendik daudenak hobetuta.

c) ZTBESko plataformak Europako plataformekin edo helburu osagarriak dituzten plataforma globalekin konektatzea.

4.– Eskabideak bi dirulaguntza-lerroetako batean sartu beharko dira: Erronkak edo Plataformak. Ez da onartuko bi lerroak proiektu berean konbinatzen dituen eskabiderik, hargatik eragotzi gabe entitate edo partzuergo berak eskabide bat baino gehiago aurkeztea modalitate batean eta bestean.

Hirugarrena.– Kreditu erabilgarria eta finantzaketa.

1.– Dirulaguntzak Eusko Jaurlaritzaren Berrikuntza Funtsaren kargura finantzatuko dira, eta urte anitzekoak izango dira. Gehienez ere hiru urteko iraupena duten jarduketak finantzatu ahal izango dira, 2026-2028 aldiari dagozkionak.

2.– Deialdi honetako dirulaguntzak emateko gehieneko kreditua 19.115.000 eurokoa da, eta honela banatuko da bi dirulaguntza-lerroen artean:

a) Erronkak dirulaguntza-lerroa: 13.500.000 euro; honela banatuko dira:

1. 2026 urtea: 4.500.000 euro.

2. 2027 urtea: 4.500.000 euro.

3. 2028 urtea: 4.500.000 euro.

b) Plataformak dirulaguntza-lerroa: 5.615.000 euro; honela banatuko dira:

1. 2026 urtea: 3.615.000 euro.

2. 2027 urtea: 1.000.000 euro.

3. 2028 urtea: 1.000.000 euro.

3.– Lerroren batean kreditu soberakinik badago, kreditu erabilgarria agortu delako erreserba-zerrendan geratu diren beste lerroko eskabideak finantzatzeko erabili ahal izango da, betiere balorazioaren ondoriozko lehentasun-ordena errespetatuz.

Laugarrena.– Entitate onuradunak.

1.– Entitate onuradun izan ahalko dira nortasun juridiko propioa duten entitateak, I+G+bko jarduerak egiten badituzte eta mota hauetako batean sartzen badira:

a) Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sarean egiaztatutako eragileak.

b) ZTBESko eragileekin lankidetzan parte hartzen duten enpresak, ETEak barne, haien esku-hartzea beharrezkoa bada emaitzak baliozkotzeko, ezartzeko, frogatzeko, mailakatzeko edo ingurune errealetan eraginkortasunez erabiltzeko.

Enpresen partaidetzak zuzenean lotuta egon beharko du onartutako proiektuarekin, eta Berrikuntzaren Itsasargien gizarte-, ekonomia-, teknologia-, osasun-, ingurumen- edo lurralde-eraginari egiten dioten ekarpenarekin justifikatu beharko da. Ezingo da mugatu emaitzak jasotzera, zerbitzuak ohiko moduan ematera edo proiektuko jarduketak hirugarrenekin kontratatzera.

Enpresak onuradun izan daitezke soilik onartutako proiektuan benetan parte hartzearekin zuzenean lotutako kostuei dagokienez. Finantzaketa hori Estatuaren laguntzatzat hartzen denean, aplikatu beharreko bateragarritasun-araubidera egokituta emango da, dagozkion mugak, baldintzak, gehieneko intentsitateak, metatze-arauak eta gardentasun-betebeharrak errespetatuz.

c) Administrazio publikoaren izaera ez duten eta Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legean definitutako euskal sektore publikoaren parte ez diren organismo publikoak, baldin eta modu eraginkorrean parte hartzen badute jarduketaren emaitzak garatzen, baliozkotzen, ezartzen edo mailakatzen, jarduketaren lidergoa beren gain hartu gabe eta, betiere, ZTBESko eragileekin lankidetzan, haien parte-hartzea beharrezkoa denean proiektuen eragin soziala edo ekonomiko-industriala bermatzeko.

2.– Eskabideak nahitaez entitate-partzuergo batek aurkeztu beharko ditu, 4. apartatuan adierazitakoaren arabera, haren ordezkari gisa jardungo duen eragilearen bidez.

3.– Partzuergoak bi eragile hauek izan beharko ditu:

a) ZTBESko eragile zientifiko bat.

b) Aurreko azpiataleko eragile zientifikoaren kategorian sartuta ez dagoen eragile bat, zeinak modu eraginkorrean parte hartu beharko baitu emaitzak definitzen, garatzen, baliozkotzen, ezartzen edo mailakatzen, jarduketaren izaeraren arabera.

4.– Partzuergoak entitate bat izendatu beharko dute, ordezkari gisa jardun dezan, taldeari dagozkion betebeharrak betetzeko ahal nahikoa izango duena, abenduaren 21eko Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko 20/2023 Legearen 11.4 artikuluan ezarritakoaren arabera. Entitate horrek eginkizun hauek hartuko ditu bere gain:

a) Berrikuntza Zuzendaritzarekiko solaskide nagusi izatea, instrukzio-, jarraipen-, kontrol-, aldaketa- eta justifikazio-ondorioetarako.

b) Partzuergoaren gobernantza koordinatzea (organoak, erabakitzeko arauak, arriskuen kudeaketa eta gorabeherak konpontzea) eta entitate parte-hartzaileek emandako jarraipen-informazioa eta justifikazio-dokumentazioa finkatzea.

5.– Partzuergoak bi eragile hauek izan beharko ditu buru:

a) ZTBESko eragile zientifiko bat, alderdi zientifikoaren buru edo lider izango dena eta unibertsitate, oinarrizko eta bikaintasuneko ikerketa zentro (ingelesezko siglekin ere ezagutzen direnak, BERC: basque excellence research centres), ikerketa kooperatiboko zentro (IKZ), ikerketa sanitarioko zentro (ISZ) nahiz I+G sanitarioko erakundeak ikerketa-egitura gisa egiaztatua izan beharko duena.

b) Eragile ez-zientifiko bat, aurreko apartatuko b) azpiapartatuan jasotakoaren arabera, eragin-zatiaren buru izango dena.

6.– Lider izango den entitatearentzat buruzagitza zientifiko horrek berekin dakar:

a) Proiektuaren koordinazio zientifiko-teknikoa eta lan-plan zientifiko-teknikoaren zuzendaritza, mugarrien, entregagaien eta adierazleen jarraipena barne.

b) entitate bazkideen arteko koherentzia zientifiko-teknikoaren bermea eta partzuergo-akordioan hartutako konpromisoak betetzearen bermea.

c) entitate ordezkariarekin eta eraginaren buruzagitzarekin lankidetzan aritzea, partzuergoaren gobernantzan eta proiektua Berrikuntzaren Itsasargien helburuetara egokitzeko lanetan.

7.– Partzuergoaren gobernantzan eraginaren buruzagitza izateak berekin dakar:

a) Jarduketa eragin sozial edo ekonomikoa benetan sortzera bideratzea, proiektuak benetako beharrekin, azken erabiltzaileekin, balio-kateekin, enpresekin, organismo publikoekin edo beste eragile garrantzitsu batzuekin duen konexioa ziurtatuz.

b) transferentzia-plana koordinatzea, emaitzak baliozkotu, ezarri, ustiatu edo mailakatzeko.

c) partzuergoko eragile ez-zientifikoen parte-hartze eraginkorra dinamizatzea.

d) eraginaren adierazleak identifikatu eta horien jarraipena egitea.

e) entitate ordezkariarekin eta zientzia arloko buruzagitzarekin lankidetzan aritzea, partzuergoaren gobernantzan eta proiektua Berrikuntzaren Itsasargien helburuetara egokitzeko lanetan.

8.– Partzuergoak akordio bat adostu beharko du parte hartzen duten entitate guztiekin, haien legezko ordezkariek sinatuta, eduki honekin:

a) Entitate ordezkariaren eta entitate koliderren berariazko identifikazioa, bai eta haien lidergo zientifikoari eta eraginari lotutako funtzioena ere, 5. apartatuan xedatutakoarekin bat etorriz.

b) Alderdi bakoitzaren gauzatze-konpromisoak.

c) Entitate bakoitzari esleitutako aurrekontua.

d) Proiektua gauzatzearen emaitzen titulartasun- eta erabilera-araubidea, eta, hala badagokio, hirugarrenekin kontratatzeko eta koordinatzeko baldintzak.

9.– Ezingo dira entitate onuradun izan 20/2023 Legearen 13.1, 13.2, 13.3 eta 13.4 artikuluetan aurreikusitako inguruabarren batean daudenak.

10.– Ezingo dira onuradun izan krisialdian dauden enpresa eta entitateak. Krisialdiaren definizioa: Batzordearen 2014/C 249/01 Komunikazioan, Krisialdian dauden enpresa ez finantzarioak salbatzeko eta berregituratzeko estatu laguntzei buruzko gidalerroei buruzkoan jasotakoa.

11.– Ezingo dira onuradun izan, Europako Batzordearen aurretiazko erabaki baten ondorioz legez kanpokotzat eta barne-merkatuarekin bateraezintzat jotako laguntza bat jaso badu eta berreskuratzeko agindua artean betetzeke badago.

Bosgarrena.– Diruz lagundu daitezkeen jarduerak eta betekizunak.

Diruz laguntzekoak diren jarduketek betekizun hauek bete beharko dituzte:

a) Berrikuntzaren Itsasargi baten edo gehiagoren esparruan sartzea eta berariaz justifikatzea Berrikuntzaren Itsasargiak programaren helburuei egiten dieten ekarpena.

b) Balio estrategiko handia eta eragin sozial, ekonomiko edo industrialaren aldetik potentziala izatea, behar bezala arrazoituta eskabidearen memoria teknikoan.

c) Eragile anitzeko gobernantza izatea, jarduketaren izaerara egokitua, entitate parte-hartzaileak, haien funtzioak, koordinazio-mekanismoak eta erabakiak hartzeko sistema identifikatuta dituena.

d) Diziplina anitzeko ikuspegia txertatzea, emaitzak garatzeko, baliozkotzeko, ezartzeko edo mailakatzeko gaitasun osagarriak dituzten eragileen parte-hartze eraginkorraren bidez.

e) Europako proiekzioa edo proiekzio globala izatea, nazioarteko ekimen, laborategi handi, sare, plataforma, programa edo estrategia garrantzitsuekiko konexioarekin bidez.

f) Estatuko laguntzen arloan Europako araudiak eskatzen duen eragin pizgarria izatea.

g) Jarduketak berekin badakar ikerketarako eta ezagutzak zabaltzeko enpresen eta organismoen arteko lankidetza eraginkorra, ezein enpresak ezin izango du bere gain hartu diruz lagundu daitezkeen kostuen % 70 baino gehiago.

Seigarrena.– Diruz lagundu daitezkeen gastuak.

1.– Emandako dirulaguntzak erabiliko dira diruz lagundutako jarduketak gauzatzearekin zortzigarren oinarrian ezarritako epean zuzenean lotutako gastuak ordaintzeko.

2.– Emandako dirulaguntza gastu hauek ordaintzeko erabiliko da:

a) Entitate onuradunetako langile propioen eta diruz lagundutako jarduketa gauzatzeko berariaz kontratatutako langileen kostuak.

Langileek, jarduketaren izaeraren arabera, modu eraginkorrean parte hartu beharko dute garapen zientifiko-teknikoan eta emaitzak baliozkotzen, ezartzen edo mailakatzen.

Prestakuntzan dauden ikertzaileen edo jarduketaren esparruan finantzatutako doktoretza-ondoko langileen kasuan, kontratazioari dagozkion kostuak diruz lagundu ahal izango dira, baina dirulaguntzaren zenbatekoak ezin izango ditu gainditu Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Sailaren oinarri arautzaile espezifikoetan edo haien ordezkoetan figura horietarako ezarritako gehieneko zenbatekoak. (https://www.euskadi.eus/ayuda_subvencion/2026/predoc-berri/web01-tramite/es/ https://www.euskadi.eus/ayuda_subvencion/2026/posdoc-nuevas-general/web01-tramite/es/).

Edonola ere, langileen kostuek ez dute gainditu diruz lagundutako proiektuaren aurrekontuaren % 70.

Langileen kostuak behar bezala justifikatutako kostu errealetan oinarrituta egotziko dira, eta koherenteak izan beharko dute betetzen dituzten funtzioekin, lanbide-kategoriarekin eta sektoreko ohiko baldintzekin.

b) Diruz lagundutako jarduerari lotutako zerbitzuak, laguntza teknikoak, aholkularitza, ebaluazioa, komunikazioa eta hedapena.

c) Diruz lagundutako jarduketaren proiektuarekin lotutako langileen mugikortasunak eta joan-etorriek eragindako kostuak.

d) Ekipamendu zientifiko txikia erosteko kostuak. Ekipamendu horren unitate bakoitzak 20.000 eurotik behera balio behar du, BEZik gabe. Informatika- eta bulego-ekipamendua erostea ez da diruz laguntzeko moduko gastua izango.

Diruz lagundu daitekeen gastua 15.000 eurokoa edo handiagoa bada (BEZik gabe), edo kontratazioaren arloko araudia eguneratzearen ondorioz ezartzen den zenbatekoaren adinakoa edo handiagoa bada, entitateak gutxienez hiru hornitzaileri eskatu beharko dizkie eskaintzak, ekipamendua eskuratzeko konpromisoa hartu aurretik, salbu eta ekipamenduaren ezaugarri bereziak direla-eta merkatuan ez badago halakoak egiten, ematen edo hornitzen dituen behar beste entitate, edo gastua dirulaguntza eman aurretik egin bada. Halaber, aurkeztutako eskaintzen artean aukeratzeko –justifikazio-unean edo, hala badagokio, dirulaguntza-eskabidean aurkeztu beharko dira–, efizientzia- eta ekonomia-irizpideei jarraituko zaie, eta ez bada aukeratzen eskaintza ekonomiko onuragarriena, berariaz justifikatu beharko da erabaki hori memoria batean.

3.– Plataformak modalitatean, azpiegitura edo plataforma zientifiko-teknologikoak eskuratu, handitu edo hobetzeari lotutako inbertsio-kostuak bakarrik lagundu ahal izango dira diruz, barnean hartuta, hala badagokio, martxan jartzeko behar-beharrezkoak diren instalazioak, ekipamenduak eta elementu osagarriak.

4.– Ez dira diruz laguntzeko moduko gastutzat hartuko egiturazko obra zibileko jarduketak, ezta erreforma integralak ere. Salbuespen gisa, eta Berrikuntza Zuzendaritzaren aldez aurreko eta esanbidezko baimena izanez gero, diruz lagundu ahal izango dira lekuak egokitzeko jarduketen ondoriozko gastuak, baldin eta baldintza hauek betetzen badira:

a) Finantzatutako plataforma instalatzeko eta martxan jartzeko behar-beharrezkoak izatea.

b) Plataforma horri zuzenean eta ezbairik gabe lotuta egotea.

c) Egiturazkoak ez izatea, eta lehendik dauden azpiegiturak handitzeko, erreforma integrala egiteko edo funtsean aldatzeko izatea.

5.– Ez dira diruz lagunduko gastu hauek:

a) Zeharkako zergak, berreskuratu edo konpentsatu badaitezke.

b) Finantza-gastuak, interesak, errekarguak eta zehapen administratibo eta penalak.

c) Guztiz edo partzialki beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide publiko edo pribatu batzuen bidez finantzatuta dauden gastuak, gastu bera bi aldiz finantzatzea dakarrenean.

Zazpigarrena.– Diruz lagundutako jardueren kontratazioa.

Entitate onuradunek hirugarrenekin kontratatu ahal izango dute diruz lagundutako jarduketen gauzatze partziala, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 31.2 eta 31.3 artikuluetan oinarrituta.

Zortzigarrena.– Jarduketak egiteko epea.

1.– Diruz lagundutako jarduketak gauzatzeko epea agindua EHAAn argitaratzen den egunean hasi eta 2028ko abenduaren 31ra artekoa izango da.

2.– Diruz lagundu daitekeen aldian benetan egindako eta ordaindutako gastuak baino ez dira lagunduko diruz.

Bederatzigarrena.– Dirulaguntzaren zenbatekoa.

1.– Diruz lagundutako proiektu bakoitzerako dirulaguntzaren zenbatekoa onartutako aurrekontuaren, lortutako balorazioaren eta kreditu erabilgarriaren arabera zehaztuko da.

2.– Gehieneko muga hauek ezartzen dira dirulaguntza-lerro bakoitzerako:

a) Erronkak: proiektuko gehieneko dirulaguntza 4.500.000 eurokoa izango da aldi osorako, eta gehienez 1.500.000 eurokoa proiektua gauzatzen den urte bakoitzeko.

b) Plataformak: gehienez 3.000.000 euroko dirulaguntza jarduketa bakoitzeko, aldi osorako.

3.– Dirulaguntza partzuergoa osatzen duten entitateen artean banatuko da, onartutako aurrekontuaren arabera. Dirulaguntza emateko ebazpenean partzuergoa osatzen duten entitate guztiak identifikatuko dira, eta zehaztuko da haietako bakoitzari emandako zenbatekoa, eta, hala badagokio, urtez urteko banaketa, bai eta ordezkari gisa jardungo duen entitate liderraren izendapena ere.

Hamargarrena.– Beste dirulaguntza edo laguntza batzuekiko bateragarritasuna.

1.– Dirulaguntzak ematea bateragarria izango da jarduketa bererako beste laguntza, dirulaguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, betiere 651/2014 (EB) Erregelamenduan aurreikusitako metatze-arauak errespetatzen badira. Dirulaguntza hauek bateragarriak izango dira proiektu edo jarduketa bererako emandako beste laguntza batzuekin, baldin eta laguntza-neurri horiek diruz laguntzekoak diren beste kostu batzuei buruzkoak badira edo, diruz laguntzekoak diren kostuen berdinak –osorik edo partez– izanda ere, dirulaguntzen baturak ez badu gainditzen (EB) 651/2014 Erregelamenduaren arabera eman daitekeen laguntzaren intentsitatea edo diru-zenbateko handiena.

2.– Aurreko apartatuko muga betetzen dela egiaztatzeko, entitate eskatzaileak erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko du, dirulaguntza eskatzen den unean eta justifikazio-fasean.

3.– Diruz lagundutako jarduera gauzatzean entitate onuradunak jarduera hori bera finantzatzen duten beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide publiko edo pribatu batzuk lortzen baditu, Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Saileko Berrikuntza Zuzendaritzari jakinarazi

beharko dio, eta hark hurrengo apartatuaren arabera jardungo du, baldin eta egiaztatzen badu gainfinantzaketa gertatu dela.

4.– Diruz lagundutako jarduerak gainfinantzaketarik badu, dirulaguntza emateko ebazpena aldatu egingo da, eta, ondorioz, emandako dirulaguntzaren zenbatekoa gutxitu egingo da, edo, hala badagokio, jasotako soberakina itzuli egin beharko da, dagozkion berandutze-interesekin batera, 20/2023 Legearen 16. artikuluaren arabera.

Hamaikagarrena.– Eskabideak eta dokumentazioa aurkeztea.

1.– Eskabideak egiteko, «Dirulaguntzaren eskabidea» eranskinean datorren formularioa bete beharko da, zeina bide telematikoz eskuratu ahal izango baita Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Sailaren egoitza elektronikoan, webgune honetan: www.euskadi.eus/zerbitzuak/1272701

2.– Entitate eskatzaileak entitate-txartela izan beharko du eskabidea elektronikoki sinatzeko. Elektronikoki izapidetu ahal izango da, ordezkari baten bidez. Ordezkaritza hori aplikatu beharreko araudiaren arabera egiaztatu beharko da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoko Ahalordeen Erregistro Elektronikoan inskribatuta egon ahalko da, helbide honetan: https://www.euskadi.eus/ordezkariak

Aplikaziora sartzeko ziurtagiri elektroniko bat erabiliko da (NAN elektronikoa, ONA txartela, FNMTren pertsona fisikoen ziurtagiria, BAK-q). Aplikaziora sartzen diren pertsonek baimena ematen diote Berrikuntza Zuzendaritzari, (deialdia kudeatzen duen organoari, alegia) identitate-datuak egiazta ditzan administrazio eskudunean, bitarteko elektronikoen bidez edo eskuragarri dituen bestelako baliabideen bidez.

3.– Dirulaguntzaren eskabidea aurkeztearekin, entitate eskatzaileak baimena ematen dio organo kudeatzaileari, zuzenean egiazta ditzan Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13.1.f) artikuluan aurreikusten diren inguruabarrak.

Dena dela, entitate eskatzaileak espresuki ukatu ahal izango du baimena. Hala eginez gero, eskabidearekin batera, beharrezkoak diren egiaztagiri eguneratuak aurkeztu beharko ditu.

4.– Behin eskabidea osorik beteta dagoenean, eta oinarri honen 2. apartatuan zehaztutako dokumentuak erantsitakoan, entitateak edo legezko ordezkariak elektronikoki sinatu beharko du eskabidea, apartatu honetan adierazitakoarekin bat etorriz; orduan geratuko da erregistraturik eskabidea.

5.– Eskabidearekin batera dokumentu hauek aurkeztu behar dira:

a) Jarduketaren memoria teknikoa: ekintza-plana deskribatuta, helburuak, Itsasargiekiko lerrokatzea, lan-plana, mugarriak, espero diren emaitzak eta eraginaren adierazleak deskribatuko dira, eta 4.4 oinarrian deskribatutako entitatearen arduradunak sinatu beharko du. Memoriak 10 orrialde izango ditu gehienez.

b) Aurrekontu banakatua eta finantzaketa-plana, diruz lagundu daitezkeen kostuak identifikatuta.

c) Gauzatzeko kronograma.

d) Partzuergo-akordioa edo partzuergoa eratzeko konpromisoa, entitate parte-hartzaileek sinatua. Bertan, berariaz identifikatuko dira entitate liderra, 4.2 oinarriaren araberako eragile zientifiko izan beharko duena, bai eta lidergoari lotutako funtzioak ere, 4.5 oinarrian aurreikusitakoak, eta behar besteko ahalordea duen ordezkaria.

e) Parte hartzen duen entitate bakoitzaren deskribapen laburra, gehienez orrialde batekoa.

f) «Dirulaguntzaren eskabidea» eranskinean jasotako erantzukizunpeko adierazpenak, honako hauei buruzkoak: onuradun izateko betekizunak betetzen direla, dirulaguntzak lortzeko debekurik ez dagoela, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla, gainfinantzaketarik ez dagoela eta aplikatu beharreko araudian aurreikusitako gainerako alderdiak.

6.– Plataformak modalitatean, aurreko apartatuko dokumentazioaz gain, Europako integrazio- eta elkarreragingarritasun-plana ere aurkeztu beharko da eskabidearekin batera. Plan horretan, gutxienez, alderdi hauek deskribatuko dira:

a) Konektatu nahi diren plataforma/azpiegitura/estrategia edo nodo europar garrantzitsuak, hala nola Strategic Technologies for Europe Platform (STEP), European Strategy Forum on Research Infrastructures (ESFRI), European Research Infrastructure Consortia (ERIC), laborategi nazional handiak edo beste baliokide batzuk.

b) Estandarrak, elkarreragingarritasun-betekizunak eta integrazio-arkitektura.

c) Lehendik dauden edo aurreikusita dauden akordioak –hala nola Memorandum of Understanding (MoU)–, hitzarmenak eta sareetako parte hartzea, eta egutegia.

Hamabigarrena.– Eskabideak eta dokumentazioa aurkezteko epea.

1.– Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

2.– Eskabideak ez baditu betetzen betekizun guztiak edo nahitaez aurkeztu beharreko dokumenturen bat falta bada, entitate interesdunari eskatuko zaio hamar egun balioduneko epean hutsa zuzentzeko edo nahitaezkoak diren dokumentuak aurkezteko; eta adieraziko zaio, hala egin ezean, eskabidea bertan behera utziko zaiola, aurretik ebazpena emanda, administrazio prozeduraren araudian ezarritako eran.

Hamahirugarrena.– Prozedura kudeatzeko duen organoa.

Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Saileko Berrikuntza Zuzendaritzak kudeatuko du dirulaguntzak emateko prozedura, eta ebazpen-proposamena egiteko beharrezkoak diren datuak zehazteko, ezagutzeko eta egiaztatzeko behar diren jarduketak ofizioz egingo ditu.

Hamalaugarrena.– Ebaluazioa.

1.– Eskabideen ebaluazioaren xedea izango da baloratzea proposatutako jarduketen kalitate zientifiko-teknikoa, bideragarritasuna, inpaktua eta koherentzia, bai eta partzuergoek Berrikuntzaren Itsasargiak programaren helburuekin bat datozen proiektuak garatzeko duten gaitasuna ere.

Ebaluazioa irizpide hauen arabera egingo da: bikaintasun zientifikoa, ezagutza sortzea, emaitzak transferitzeko eta baliarazteko gaitasuna, partzuergoaren kalitatea eta finantza-planteamenduaren sendotasuna; hori guztia oinarri honen 4. apartatuan ezarritako irizpide-multzoen arabera.

2.– Ebaluazio-prozesuan zehar, informazio osagarria eskatu ahal izango zaie entitate eskatzaileei, aurkeztutako proposamenen edukia argitzeko.

3.– Unibasq Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziak ebaluatuko ditu aurkeztutako eskabideak, eta txosten bat egingo du. Txosten hori hautaketa-batzordeari helaraziko dio –zeina hurrengo oinarrian deskribatuko baita– egindako ebaluazioaren emaitza zehaztu dezan.

4.– Eskabideen ebaluazioa irizpide-blokeetan egituratuko da, eta gehienez ere 100 puntu emango dira guztira, modalitate bakoitzari dagozkion tauletan ezarritakoaren arabera.

Taula horietan jasotako irizpideak eta azpi-irizpideak batera baloratuko dira, hargatik eragotzi gabe blokeek elementu hauei erantzutea:

• Ekintza-plana (zientifiko-teknikoa edo estrategikoa, modalitatearen arabera), helburuak, Berrikuntzaren Itsasargiekiko lerrokatzea, aurreikusitako emaitzak, gaitasunak eta nazioarteko konexioa barne.

• Finantzaketa-plana, aurrekontuaren sendotasuna, kofinantzaketa eta baliabideak erakartzeko gaitasuna barne.

• Partzuergoa, ibilbidea, liderrak, osaeraren koherentzia, balio-katearen estaldura eta nazioarteko konexiorako gaitasuna barne, 4. oinarrian aurreikusitako partzuergoaren osaeraren eta funtzioen arabera.

Eskabide bakoitzaren azken puntuazioa irizpide-bloke horien balorazio orokorraren emaitza izango da, tauletan ezarritako haztapenen arabera.

5.– Balorazio-irizpideak.

a) Hauek dira Erronkak modalitaterako puntuazioak:

	Irizpidea	Azpi-irizpidea
Ekintza-plan zientifiko-teknikoa	35	
Helburu zientifiko-teknikoak		5
Berrikuntzaren Itsasargi bat edo gehiago lerrokatzea		5
Erronkak Itsasargiarekiko duen garrantzia		6
Kronograma zientifiko-teknikoa		2
Aurreikusitako emaitza zientifikoak		5
Emaitza zientifikoen transferentzia-estrategia		5
Europarekiko edo munduarekiko konexiorako gaitasuna		5
Arriskuak eta kontingentzia-plana		2
Finantzaketa-plana	15	
Aurrekontua, egutegia, eragile bakoitzaren banaketa eta justifikazioa		5
Kofinantzaketa (pribatua, publikoa: tokikoa, europarra, globala)		5
Eusko Jaurlaritzako sailen baliabideak eskuratzea, deialdi honetakoetatik kanpo		5
Partzuergoa	50	
Eragile zientifikoen ibilbidea eta kalitatea		10
Eraginaren eragileen ibilbidea eta kalitatea		10
Arduradun zientifikoa partzuergoaren lider gisa		5
Eraginaren arduraduna partzuergoaren lider gisa		5
Partzuergoaren osaeraren koherentzia proposatutako ekintza-planarekiko		7
Partzuergoaren balio-katearen estaldura		7
Partzuergoak Europarekin edo munduarekin konektatzeko duen gaitasuna, Itsasargia (edo Itsasargia) kontuan hartuta		6

b) Hauek dira Plataformak modalitaterako puntuazioak:

	Irizpidea	Azpi-irizpidea
Ekintza-plan zientifiko-teknikoa	50	
Helburuak		8
Berrikuntzaren Itsasargi bat edo gehiago lerrokatzea		7
Plataformaren Itsasargiarekiko duen garrantzia		9
Zientzia-gaitasunak		9
Emaitza zientifikoak transferitzeko gaitasunak		9
Plataformak Europarekin edo munduarekin konektatzeko duen gaitasuna		8
Finantzaketako eta finantza-jasangarritasuneko plana.	15	
Aurrekontua, egutegia, eragile bakoitzaren banaketa eta justifikazioa		5
Kofinantzaketa (pribatua, publikoa: tokikoa, europarra, globala)		5
Eusko Jaurlaritzako sailen baliabideak eskuratzea, deialdi honetakoetatik kanpo		5
Partzuergoa	35	
Eragile zientifikoen ibilbidea eta kalitatea		6
Eraginaren eragileen ibilbidea eta kalitatea		6
Arduradun zientifikoa partzuergoaren lider gisa		4
Eraginaren arduraduna partzuergoaren lider gisa		4
Partzuergoaren osaeraren koherentzia proposatutako ekintza-planarekiko		5
Partzuergoaren balio-katearen estaldura		5
Partzuergoak Europarekin edo munduarekin konektatzeko duen gaitasuna, plataformari dagokionez		5

6.– Baloraziorako gutxieneko atalaseak, modalitateka.

Kalitate-, eragin- eta bideragarritasun-maila egokia bermatze aldera eskaera bat finantzaketarako proposatuko bada, gutxieneko atalase hauetara iritsi beharko da, modalitatearen arabera:

a) Erronkak modalitatea.

– 60 puntu azken puntuazioan.

– 20 puntu ekintza-planari buruzko blokean.

– 10 puntu finantzaketa-planari buruzko blokean.

– 25 puntu partzuergoari buruzko blokean.

b) Plataformak modalitatea:

– 60 puntu azken puntuazioan.

– 25 puntu ekintza-planari buruzko blokean.

– 10 puntu finantzaketako eta finantza-jasangarritasuneko planaren blokean.

– 20 puntu partzuergoari buruzko blokean.

Atalase horietako edozein betetzen ez bada, eskaera hautaketa-prozesutik kanpo geratuko da.

7.– Berdinketak.

Emandako puntuazioan berdinketarik izanez gero, lehentasun-hurrenkera hau aplikatuko da:

A) Erronkak, puntuaziorik handiena:

1. Partzuergoaren blokean.

2. Ekintza-planaren blokean.

3. Finantzaketa-planaren blokean.

B) Plataformak, puntuazio handiena:

1. Ekintza-planaren blokean.

2. Partzuergoaren blokean.

3. Finantzaketako eta finantza-jasangarritasuneko planaren blokean.

Hamabosgarrena.– Hautaketa Batzordea.

1.– Ebaluazio zientifiko-teknikoaren emaitzak Hautaketa Batzordeari helaraziko zaizkio, eta hark zehaztuko du egindako ebaluazioaren emaitza.

2.– Hautaketa Batzordea hauek osatuko dute: Berrikuntzako zuzendaria (batzordeburua izango da), Zientzia Politikako zuzendaria eta Zientzia eta Berrikuntza Sailburuordetzako teknikari bat (idazkaria).

3.– Berrikuntzako zuzendariari dagokio aurkeztutako eskabideetan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzea, bai eta aurrekontua aztertzea eta, kasua bada, onartutako aurrekontu osoa zehaztea ere, agindu honetan ezarritako mugen barruan.

4.– Berrikuntzako zuzendariak, espedientea eta Balorazio Batzordearen akta ikusita, behin betiko ebazpen-proposamena egingo du, dirulaguntza-lerroko, bat.

Hamaseigarrena.– Ebazpena, epea eta jakinarazpena.

1.– Zientzia eta Berrikuntzako sailburuordeari dagokio diruz lagunduko diren lerro bakoitzeko laguntzak emateko ebazpena ematea.

2.– Ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea 6 hilabetekoa izango da, agindu hau argitaratzen den egunetik aurrera. Epe hori igaro eta ebazpen espresurik eman ez bada, eskabideak ezetsitzat joko dira, aplikatu beharreko araudiaren arabera.

3.– Ebazpenak bitarteko elektronikoen bidez jakinaraziko dira, eta, gutxienez, honako hauek jasoko dituzte: baietsitako eta ezetsitako eskabideen zerrenda, ezesteko arrazoia, emandako zenbatekoa, entitate onuradunak eta bakoitzari emandako zenbatekoa, bai eta urtez urteko banaketa ere.

Hamazazpigarrena.– Aldaketak eta uko egiteak.

1.– Laguntza emateko kontuan hartutako baldintzetan aldaketa garrantzitsuren bat eginez gero, edo aldi berean beste laguntza batzuk lortuz gero, ebazpena aldatu ahal izango da, betiere diruz lagundutako jarduketaren xedeari eusten bazaio eta aplikatu beharreko araudian ezarritako betekizunak betetzen badira.

2.– Emandako laguntzari uko eginez gero, bitarteko elektronikoen bidez jakinarazi beharko da, eta administrazio-prozeduraren eta dirulaguntzen araudian aurreikusitako ondorioak izango ditu.

Hemezortzigarrena.– Dirulaguntzak ordaintzea.

1.– Dirulaguntzak hainbat urtetan ordainduko dira, urteko ordainketen bidez eta dirulaguntza emateko ebazpenean ezarritako banaketaren arabera; hona eskema:

a) 2026. urtea: ordainketa bakarrean ordainduko da urte horri dagokion zenbatekoaren % 100, dirulaguntza emateko ebazpena eman ondoren.

b) 2027. urtea: urte horri dagokion zenbatekoaren % 80ko aurrerakina urteko lehen seihilekoa amaitu baino lehen ordainduko da.

c) 2028. urtea: urte horri dagokion zenbatekoaren % 80ko aurrerakina urteko lehen seihilekoa amaitu baino lehen ordainduko da.

2.– Entitate onuradunak 2026. eta 2027. urteei dagokien justifikazioa aurkeztu beharko du, 19. oinarrian adierazitako baldintzetan.

Justifikazio hori egiaztatu ondoren, 2027ko urteko ordainketaren gainerako % 20a ordainduko da, baldin eta egiaztatzen bada emandako urte horietan laguntzaren % 80 gutxienez gauzatu dela.

3.– 2028. urteko gainerako % 20a ordaintzeko, entitate onuradunak jarduketa osoari dagokion justifikazioa aurkeztu beharko du, 19. oinarrian adierazitako baldintzetan.

Azken justifikazioa egiaztatu ondoren, urte horretako gainerako % 20a ordainduko da, hala badagokio.

4.– Aurkeztutako justifikazioa aztertuta ondorioztatzen bada aurreikusitakoa baino gauzatze txikiagoa egin dela edo agindu honetan ezarritako betekizunak ez direla betetzen, emandako dirulaguntza gutxitu ahal izango da, edo, hala badagokio, entitate onuradunak jasotako zenbatekoak itzuli beharko ditu, dirulaguntzen araudian aurreikusitako baldintzetan.

5.– Dirulaguntzarik ordainduko badira, entitate onuradunak egunean izan beharko ditu zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak eta ez du ebazpen baten ondorioz itzuli beharreko dirulaguntzarik izango, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduan ezarritakoaren arabera. Agindu hori Euskadiko Aurrekontu Orokorren kargura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla egiaztatzeari eta dirulaguntzak itzultzeari buruzkoa da. (EHAA, 34. zk., 2023ko otsailaren 17koa).

6.– Dirulaguntzaren zenbatekoa, hala badagokio, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan aurreikusitako berme-araubidearen mende egongo da. Zehazki, entitate onuradun batek jaso beharreko ordainketa aurreratuen zenbatekoa 180.000 eurotik gorakoa denean, dagozkion bermeak eratzea eskatu ahal izango da, araudi horretan ezarritako baldintzetan.

7.– Administrazioak laguntzak eta dirulaguntzak ordaindu ahal izateko, Eusko Jaurlaritzaren kasuan kasuko datu-basean (hirugarrenen erregistroan) egon behar du entitate onuradunak. Alta emateko edo datuak aldatzeko, izapidea Eusko Jaurlaritzaren hirugarrenen erregistro elektronikoaren bidez egin beharko da.

Hemeretzigarrena.– Dirulaguntzen justifikazioa.

1.– Entitate onuradunek justifikatu beharko dute diruz lagundutako jarduketa egin dela eta laguntza ematea eragin duen helburua lortu dela; horretarako, justifikazio-agiriak aurkeztu beharko dituzte, oinarri honetan ezarritakoaren arabera.

2.– Justifikazioa gauzatze-aldien arabera egingo da, eskema honen arabera:

a) Lehen justifikazioa, 2026. eta 2027. urteei dagokiena, 2028ko urtarrilaren 15a baino lehen aurkeztu beharko da, eta urte horiei dagokien jarduketaren gauzatze-maila egiaztatu beharko du.

b) Azken justifikazioa, diruz lagundutako jarduketa osoari dagokiona, 2029ko urtarrilaren 15a baino lehen aurkeztu beharko da. Azken justifikazio horrek egiaztatu beharko du diruz lagundutako jarduketa osoa egin dela, aurreikusitako helburuak lortu direla eta jasotako funts publikoak behar bezala aplikatu direla.

3.– Lehen justifikazioak 2026. eta 2027. urteei dagokien jarduketaren gauzatze-maila egiaztatu beharko du, eta, hala badagokio, 18. oinarrian aurreikusitako likidazioa ordaintzeko oinarri gisa baliatuko da. Edozeinetara ere, likidazioa ordaintzeko 18. oinarrian aurreikusitako gutxieneko gauzatze-maila egiaztatu beharko oinarri horretan aurreikusitako eran.

4.– Azken justifikazioak egiaztatu beharko du diruz lagundutako jarduketa osoa egin dela, aurreikusitako helburuak lortu direla eta jasotako funts publikoak behar bezala aplikatu direla.

5.– Justifikazio-dokumentazioan honako hauek jaso beharko dira:

a) Gauzatzearen memoria zientifikoa, alderdi hauek jasoko dituena: egindako jarduerak, helburuen betetze-maila, lortutako emaitzak –jarraipen-adierazleak barne– eta, hala badagokio, izandako desbideratzeak. Memoria entitatearen arduradunak sinatu beharko du.

b) Memoria ekonomikoa, egindako gastuen zerrenda sailkatua, hornitzaileen eta fakturen identifikazioa eta dagozkien ordainagiriak jasoko dituena, 4.4 oinarrian deskribatutako entitatearen arduradunak sinatuta.

c) Helburu bererako lortutako beste laguntza edo diru-sarrera batzuen aitorpena, gainfinantzaketarik ez dagoela egiaztatzeko, entitatearen arduradunak sinatuta.

6.– Organo kudeatzaileak beharrezkoak diren egiaztapenak egin ahal izango ditu jarduketa behar bezala gauzatu dela egiaztatzeko, eta beharrezkoa den informazio gehigarria ere eskatu ahal izango du.

7.– Justifikazio-betebeharrak ez betetzeak, epez kanpo aurkezteak edo nahikoa ez izateak kobratzeko eskubidea galtzea, laguntza gutxitzea eta, hala badagokio, jasotako zenbatekoak itzultzea ekar dezake, dirulaguntzei buruzko araudian aurreikusitakoaren arabera.

Hogeigarrena.– Entitate onuradunen betebeharrak.

Dirulaguntzen araudian ezarritako gainerako betebeharrak alde batera utzi gabe, entitate onuradunek honako hauek bete beharko dituzte:

a) Diruz lagundutako jarduketa onartutako baldintzetan gauzatzea eta jasotako funtsak horretarako erabiltzea.

b) Gastuak behar bezala justifikatzea eta kontabilitate-sistema bereizia edo kontabilitate-kode egokia mantentzea.

c) Organo eskudunek egin ditzaketen egiaztapen-, jarraipen- eta kontrol-jarduketak onartzea.

d) Jarduketa finantzatzen duten beste laguntza edo diru-sarrera batzuk lortu direla jakinaraztea.

e) Publizitate egokia ematea Eusko Jaurlaritzako Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Sailaren eta Berrikuntza Funtsaren aldetik jasotako finantzaketari.

f) Frogagiriak legez ezarritako epeetan gordetzea.

g) Aplikatzekoa den araudian aurreikusitako gardentasunari, publizitate aktiboari eta informazioa emateari buruzko betebeharrak betetzea, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko Legearen 27. artikuluan ezarritakoaren arabera.

h) Berdintasun-neurriak eta genero-ikuspegia txertatzeko neurriak sartzea, jarduketaren izaerak hala eskatzen duenean, bereziki honako arlo hauetan: pertsonen parte-hartzea, ezagutzaren irispidea, datuen sorrera edo tratamendua, emaitzen hedapena, langileen kontratazioa edo gobernantza-organoen osaera. Eta, halaber, jarduketari lotutako dokumentazio eta material guztietan hizkuntzaren erabilera ez-sexista bermatzea.

Hogeita batgarrena.– Ez-betetzeak, itzultzea eta zehapen-araubidea.

1.– Ezarritako betekizunak, dirulaguntza emateko ebazpenean adierazitako baldintzak edo entitate onuradunaren betebeharrak betetzen ez badira, dagokion prozedura izapidetu ondoren, kobratzeko eskubidea galdu ahal izango da, edo, hala badagokio, jasotako zenbatekoak itzuli beharko dira, osorik edo zati batean, dagozkion interesekin, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 36. artikuluan eta aplikatu beharreko gainerako araudian aurreikusitakoaren arabera.

2.– Dirulaguntzen araudian aurreikusitako zehapen-araubidea aplikatuko da.

I. ERANSKINA

DIRULAGUNTZAREN ESKABIDEA

A. ENTITATE ORDEZKARIA ETA LEGEZKO ORDEZKARIA

ENTITATE ORDEZKARIA

IFK					
Sozietatearen izena					
Helbidea				PK	
Telefonoa		Helbide elektronikoa			

LEGEZKO ORDEZKARIA

Abizenak, izena							
NAN/AIZ		Sexua		☐	Gizona	☐	Emakumea
Helbide elektronikoa		1. telefonoa		2. telefonoa			

B. ESKABIDEARI BURUZKO DATUAK

PROIEKTUAREN IZENBURUA			
ERRONKAK MODALITATEA		PLATAFORMAK MODALITATEA	
Adierazi zer entitatek hartzen duten parte partzuergoan.			
IFK	Sozietatearen izena		
Eskatutako aurrekontua, guztira			
Partzuergoan parte hartzen duen entitate bakoitzak eskatutako aurrekontua			

ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZARAKO EUSKAL SAREKO (ZTBES) KIDEA DA BAI / EZ	

LANKIDETZARAKO BESTE SARE EDO ALIANTZA BATEKO KIDEA DA, BAI/EZ	
BAIETZ erantzunez gero, zehaztu zeinetakoa.	

IFK	Sozietatearen izena

ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZARAKO EUSKAL SAREKO (ZTBES) KIDEA DA BAI / EZ	

LANKIDETZARAKO BESTE SARE EDO ALIANTZA BATEKO KIDEA DA, BAI/EZ	
BAIETZ erantzunez gero, zehaztu zeinetakoa.	

IFK	Sozietatearen izena

ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZARAKO EUSKAL SAREKO (ZTBES) KIDEA DA BAI / EZ	

LANKIDETZARAKO BESTE SARE EDO ALIANTZA BATEKO KIDEA DA, BAI/EZ	
BAIETZ erantzunez gero, zehaztu zeinetakoa.	

IFK	Sozietatearen izena

ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZARAKO EUSKAL SAREKO (ZTBES) KIDEA DA BAI / EZ	

LANKIDETZARAKO BESTE SARE EDO ALIANTZA BATEKO KIDEA DA, BAI/EZ	
BAIETZ erantzunez gero, zehaztu zeinetakoa.	

Eskabidea sinatzen duenak, entitate eskatzailearen legezko ordezkariak, alegia, Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburuaren 2026ko urriaren 6ko Agindua oinarri hartuta (Aginduaren bidez onartzen baitira Berrikuntzaren Itsasargiak programako Erronkak eta Plataformak modalitateetako dirulaguntzetarako oinarri arautzaileak eta 2026-2028 ikasturterako deialdia egiten baita), hau

ESKATZEN DU:

«Berrikuntzaren Itsasargiak» programaren barruan Erronak/Plataformak modalitateko dirulaguntza bat eman dakiola, agiri honekin batera aurkeztutako datuekin bat etorriz eta

ADIERAZTEN DU:

Lehenengoa.– Entitateak betetzen dituela Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13. artikuluan dirulaguntzaren onuradun izateko ezarritako betekizunak, eta ez dituela urratzen «Berrikuntzaren Itsasargiak» programa (Erronak/Plataformak modalitatea) bultzatzeko dirulaguntzei dagokienez ezarrita dauden gainerako legezko debekuak:

a) Ez du zigorrik jaso, epai irmo bidez, dirulaguntzak edo laguntza publikoak eskuratzea galarazi dionik, ez eta delitu hauengatik ere: prebarikazioa, funtzionario-eroskeria, ondasun publikoak bidegabe eralgitzea, influentzia-trafikoa, iruzurrak eta legearen aurkako ordainarazpenak edo hirigintza-delituak.
b) Ez du egin borondatezko konkurtsoa deklaratzeko eskaerarik, ez dute kaudimengabetzat jo inongo prozeduratan, ez dago konkurtsoan deklaratuta, salbu eta horretan eraginkortasuna hartu badu hitzarmen batek, ez dago esku-hartze judizialaren pean, eta ez du desgaikuntza-zigorrik jaso Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen arabera, konkurtsoa kalifikatzeko epaian ezarritako desgaikuntza-aldia amaitu gabe.
c) Ez izatea Administrazioarekin sinatutako kontraturen baten suntsiarazpen irmorik, kausaren batean errudun deklaratuta egoteagatik.
d) Pertsona fisikoa, merkataritza-sozietateen administratzaileak edo beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkaritza dutenak ez egotea lege hauek jasotako bateraezintasun-araubidearen kasuetako batean: Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legea eta Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Interes Gatazkak Arautzen dituen ekainaren 26ko Eusko Legebiltzarraren 1/2014 Legea. Edo ez izatea Hauteskunde Araubide Orokorraren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautapenezko karguak, lege horretan edo gai horiek arautzen dituen autonomia-erkidegoko araudian ezarritako baldintzetan.

e) Ordainduta edukitzea dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak, 2023ko otsailaren 13ko Aginduaren 4 artikuluan agintzen den eran (Agindua, 2023ko otsailaren 13koa, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan bai zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, bai dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak betetzen direla egiaztatzeari buruzkoa).
f) Ez du dirulaguntzak eskuratzea galarazten duen ebazpen irmo bidezko zehapenik, betiere hala xedatzen duen ezein legeren arabera. Zehazki, sexuagatiko diskriminazioan erortzeagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik zehapen administratibo edo penala jaso izana, dagokion zehapenean ezarritako aldia gainditu gabe.
g) Betetzen du Estatuko araudiaren arabera berdintasun-plan bat indarrean izateko betebeharra, bai eta sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko eta borrokatzeko neurriak ezartzeko betebeharra ere, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko Estatuko legeriak ezarritakoaren arabera. Ondorio horietarako, jasota geratuko da Euskal Autonomia Erkidegoko Laneko Hitzarmen eta Akordio Kolektiboen eta Berdintasun Planen Erregistroa izatea.
h) LGTBIfobia erakutsi, bultzatu edo sustatzea, barnean dela bihurketa-terapiak sustatzea edo egitea (2023ko otsailaren 28ko 4/2023 Legearen 82. artikulua).
i) Zigortuta egotea arau-hauste astun edo oso astun batengatik, administrazio-bideko ebazpen irmo baten bidez, Hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzeari buruzko 2022ko apirilaren 8ko 7/2022 Legea edo Euskadiko Ingurumen Administrazioaren 2021eko abenduaren 9ko 10/2021 Legea urratuz, harik eta neurri zuzentzaile egokiak bete eta zehapena ordaindu arte.
j) Ez betetzea desgaitasuna duten pertsonentzako lanpostuak erreserbatzeko legez ezarritako kuota, kuota hori betetzeko neurri alternatiboak martxan jarri direla egiaztatu gabe.
k) Ez du jaso enpresa-deslokalizazioaren deklaraziorik, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 51. artikuluaren arabera[3].
l) Betetzen ditu zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, legez ezarritakoaren arabera. (Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduaren 6.6. eta 8. artikuluen kasuan; agindu hori Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan bai zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, bai dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak betetzen direla egiaztatzeari buruzkoa da).
m) Gainfinantzaketarik ez izatea, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko Legearen 9.4 h) artikuluaren arabera.

Bigarrena.– Indarrean dagoen araudian ezarritako betekizunak betetzen ditu.
Hirugarrena.– Eskabide honetan jasotako datu guztiak egiazkoak dira eta osorik daude, baita aurkeztutako dokumentazioa ere, eta neure gain hartzen dut haien egiazkotasunaren erantzukizuna (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.7 artikulua).
Laugarrena.– Onatzen duela, erantzukizunpeko adierazpen edo komunikazio bati gehitzen zaion funtsezko edozein datu edo informazio zehatza ez bada, faltsua bada edo falta bada, edo administrazio eskudunari erantzukizunpeko adierazpena aurkezten ez bazaio, edo deklaratutakoa betetzen dela egiaztatzeko eskatzen den dokumentazioa aurkezten ez bada komunikazioan, ezinezkoa izango dela dena delako eskubidea edo jarduera gauzatzen jarraitzea gertaera horien berri jakiten den unetik aurrera, alde batera utzi gabe sortzen diren erantzukizun penal, zibil edo administratiboak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69.4 artikulua).

Entitatearen legezko ordezkaria

NANa _____ Abizenak, izena _____

Deialdiko parte-hartzaileek baimena ematen dute deialdi hau izapidetzean jasotako datu pertsonalak tratatu eta argitaratzeko. Datuok 2010eko urriaren 4ko Aginduan (2010eko azaroaren 5eko EHAAn) fitxategi batean sartuko dira ("Udako hizkuntza-ikasketak" deritzonean, hain zuzen) arautautako datu-tratamendurako jardueretako batean sartuko dira, zeinaren helburua baita dirulaguntzen deialdi hau kudeatzea, bai eta deialdira biltzen direnei deialdiaren bilakaeraren berri ematea. Hori guztia honako xedapen hauetan ezarritakoarekin bat etorriz: Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa; Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamendua (EB), Datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituena eta 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen duena (Datuak babesteko Erregelamendu Orokorra), eta Datuak Babesteko Euskal Agintaritzarena abenduaren 21eko 16/2023 Legea.

a) «Bekadunentzako laguntzak» fitxategia. Deialdi hauetako datuak biltzen ditu: Doktoratu aurreko eta doktoratu osteko laguntzak, Basque Visiting Fellow eta doktoratu aurreko egonaldietarako laguntzak.

b) «Ikerketa» fitxategia. Deialdi hauetako datuak biltzen ditu: Ikertzaileen Mugikortasunerako Laguntzak; Kongresuak Antolatzea; Oinarrizko Ikerketako eta Ikerketa Aplikatuko Proiektuak; Unibertsitate-Enpresa Proiektuak; Ekipamendu Zientifikoa; IKZ programa; Euskal Unibertsitate Sistemako Ikertaldeen Jarduerak Sustatzeko Laguntzak, eta Ikerkuntzako Euskadi Saria.

Berrikuntza Zuzendaritza da fitxategi horien organo arduraduna. Berrikuntza Zuzendaritzan gauzatu ahal izango dira datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta haien aurka egiteko eskubideak. Horretarako, Eusko Jaurlaritzaren Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Saileko Berrikuntza Zuzendaritzara jo behar da (Donostia kalea 1, Vitoria-Gasteiz).